

**KULTURA SAILA**

Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailburuordetza
Kirol Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
Dirección de Deportes

Prestakuntza-arduradun agurgarria:

Estimado/a sr./sra. responsable de formación:

Apirilaren 12an Faduran egindako bileran eta idatziz jakinarazi genuen moduan, «Igaraldia» deritzon horretako entrenatzaile-ikastaroak arautzen dituen abenduaren 7ko 3106/2010EDU Agindu berriak dioenez, bloke komun edo espezifiko bat egina duten pertsonak 2012ko urtarrilaren 31ra arteko epea dute falta den blokearekin beren prestakuntza osatzeko.

Como se informó previamente en reunión del día 12 de abril en Fadura y por escrito, la nueva Orden EDU/3186/2010 de 7 de diciembre por la que se regulan los cursos de entrenadores/as del denominado Periodo Transitorio, establece que las personas que han realizado un bloque (común o específico) poseen de plazo hasta el 31 de enero de 2012 para finalizar la formación con el bloque restante.

Kirol Zuzendaritzak euskal federazioei jakinarazi dienez, komenigarria izango litzateke bloke espezifikoak antolatzea, jadanik bloke komun bat egina dutenek aukera izan dezaten beren prestakuntza osatzeko.

Desde la Dirección de Deportes se ha transmitido a las federaciones vascas la conveniencia de organizar bloques específicos que den salida a aquellas personas que ya han realizado un bloque común.

Jakitun gaude hainbat federaziok arazoak dituztela bloke espezifiko bat egiteko zenbateraino eskaria dagoen jakiteko.

Nos consta de la existencia de dificultades por parte de ciertas Federaciones para saber la posible demanda existente para realizar un bloque específico.

Beraz, Kirolaren Euskal Eskolatik ekimen bat proposatu nahi dizuegu, federazio batzuek dagoeneko abiarazi dutena: aurreinskripzio bat egitea.

En consecuencia desde la Escuela Vasca del Deporte, os queremos trasladar una iniciativa que consideramos puede resultaros interesante y que ya ha sido abordada por alguna de las federaciones. Consiste en realizar una preinscripción.

Ikastaroaren ezaugarri orokorrak definitu ondoren (gutxi gorabeherako data, tokia eta abar), aurreinskripzioa egiteko epe bat zabalduko litzateke, benetan dagoen eskaria zein den jakiteko.

Se definirían las posibles características generales del curso (fechas aproximadas, lugar, etc.) y se abriría un plazo de preinscripción con una fecha límite que permitiera conocer la demanda existente.

Behar bezainbesteko eskaria badago, eskabidea egingo litzaioke Kirolaren Euskal Eskolari bidezko baimena lortzeko, eta behin baimena emanaz gero, behin betiko inskripzioa egingo litzateke.

En el caso de comprobar que existe una demanda suficiente, se realizaría la solicitud a la Escuela Vasca del Deporte de la autorización pertinente y una vez concedida, se realizaría la inscripción definitiva.



KULTURA SAILA

Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailburuordetza
Kirol Zuzendaritza



DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
Dirección de Deportes

Aurreinskripzioaren ekimen horrekin saihestu egingo litzateke bloke espezifiko baterako bidezko baimena lortzeko tramitazio guztia egin behar izatea, zertarako eta beharbada hura aurrera ateratzeko behar den pertsona kopuru nahikoa egon gabe.

Aurreinskripzioa zuzen egiteko, funtsezkoa da honako hau jakinaraztea:

- Beharrezkoa dela aurreinskripzioa egitea, geroko behin betiko inskripzioa egin ahal izateko.
- Ez dagoela geroko behin betiko inskripzioa egiteko obligaziorik.

Beharrezkoa da, horretaz gainera, ikastaroaren berri behar bezain zabal eta egoki ematea, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (lurralde-federazioetan, klubetan, entrenatzaileen eta jokalarien artean...), bai kanpoko beste erkidegoetan, batez ere mugakide direnetan.

Gure aholkua da, aurreinskripzioa egitekotan, maiatzean egitea. Horrela, eskariaren dokumentazioa ekainean presta daiteke, bai eta Eskolak eskabidea aztertu ere (behin betiko eskaria aurkezteko epea 2011ko ekainaren 30ean bukatzen da).

Argibide hauek baliagarriak izango zaizkizuelakoan, jaso ezazue agur bat.

La iniciativa de la preinscripción evitaría a las federaciones el posible arduo trabajo de realizar toda la tramitación de solicitud de un bloque específico para la obtención de la autorización pertinente y el resultado posterior de una inexistencia de personas interesadas suficiente que permitan su desarrollo.

Para que la preinscripción resulte satisfactoria es fundamental comunicar lo siguiente:

- Establecimiento de obligatoriedad de inscribirse en la preinscripción para poder optar a la posterior inscripción definitiva.
- No implicación de compromiso obligatorio en la inscripción definitiva posterior.

Resulta fundamental también realizar una amplia y adecuada difusión y comunicación del curso. Tanto a nivel de la Comunidad Autónoma del País Vasco (federaciones territoriales, clubes, entrenadores/as, jugadores/as...) como del resto de Comunidades (federaciones, clubes...), sobre todo las limítrofes.

Os recomendamos que en el caso de optar por realizar este periodo de preinscripción, éste sea realizado en el mes de mayo y que el mes de junio sea utilizado para la elaboración de la documentación de la solicitud y contraste de la misma con la Escuela (límite de presentación de la solicitud definitiva: 30 de junio de 2011).

Esperando que esta información os pueda resultar de ayuda, un saludo.

Joseba Bujanda Bujanda
Responsable de la Escuela Vasca del Deporte